

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2019.

Joan den urriaren 7an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak honako erakunde hauen 2019ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena onartu zuen: Arabako Foru Aldundia (AFA), haren foru erakunde autonomoak (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, Gaztediaren Foru Erakundea eta Arabako Foru Suhiltzaileak), haren 7 sozietate publikoak eta foru fundazioak (Artium, Santa Maria Katedrala, Añanako Gatz Harana eta Kirolaraba) eta Urbide-Arabako Ur Partzuergoa.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du kasu guztietarako, salbuespenik gabe.

2019ko abenduaren 31ko finantza egoerari dagokionez, HKEEk adierazi du AFaren 2019ko abenduaren 31ko finantza egoera aurreko ekitaldikoaren parekoa dela. Azpimarratu du 2019an AFaren eskubide kitatuak eta obligazio likidoak behin betiko aurrekontuaren % 99,57 eta % 98,39 izan zirela, hurrenez hurren, eta horrek ekitaldiaren emaitza 31,3 milioi euro izatea ekarri duela. AFaren zorpetzeak 8,9 milioi euro egin du behera, 2018ko datuekin alderatuta.

Epaitegiak, berebat, **aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak** bete direla adierazi du. Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zitzairen eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

Bai Aldundiak bai erakunde autonomoek eta sozietate publikoek **zuzentasunez bete dute** ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz Diputatuen Kontseiluak 581 mila euroren gastuak baliokidetu dituen, Kontu-hartzailtzak txosten negatiboa jaulkia zuela. Halaber, GOFEk, Kalkulu Zentroa SAK, Indesa 2010 SLk eta Urbide Arabako Ur Partzuergoak zenbait zerbitzu eta hornidura kontratatu dituzte publikotasun eta lehia printzipioak bete gabe.